

Kazetarientzako tresnak adimen artifizialak indartutako desinformazioaren aurka

(Tools for journalists against AI-driven disinformation)

Sarrionandia, Barbara

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Gizarte eta Komunikazio
Zientzien Fakultatea, Kazetaritza Saila. Sarriena z/g. 48940 Leioa.
bsarrionandia001@ikasle.ehu.eus

Recep.: 18.09.2024

BIBLID [eISSN 1988-3935 (2024), 20; 111-138]

Acep.: 16.11.2024

Kazetaritzan adimen artifiziala (AA) txertatzeak guztiz eraldatzen du informazioa sortzeko, banatzeko eta kontsumitzeko era, baina desinformazioarekin eta etika profesionalarekin lotutako arrisku esanguratsuak ere badakartza. Artikulu honek aztertzen du nola tresna aurreratuek, besteak beste eredu sortzaileek eta deepfake-ek, aldatzen dituzten ekosistema informatiboak eta handitzen duten eduki faltsuen hedapena. Literatura zientifikoaren azterketan eta AAren eta desinformazioaren arteko harremanari buruzko ikerketa berrietan oinarrituta, kazetaritzak aurrez aurre dituen erronka etiko eta operatibo nagusiak identifikatzen dira. Gainera, hainbat irtenbide aztertzen dira, hala nola alfabetatze mediatikoa, fact-checking-a eta teknologia horien erabilera arduratsua bultzatzen duten erregulazio digitaleko politiken diseinua. Lan honek berrikuntza teknologikoa, prestakuntza etikoa eta nazioarteko lankidetzak uztartuko dituen diziplina anitzeko ikuspegiaren garrantzia azpimarratzen du, kazetaritzan konfiantza indartzeko eta gero eta konplexuagoa den ingurune digital batean informaziorako eskubidea babesteko.

Gako hitzak: Kazetaritza. Adimen artifiziala (AA). Desinformazioa. Alfabetatze mediatikoa. Fact-checking-a.

La integración de la inteligencia artificial (IA) en el periodismo está transformando radicalmente la forma en que se produce, distribuye y consume la información, pero también plantea riesgos significativos relacionados con la desinformación y la ética profesional. Este artículo analiza cómo herramientas avanzadas, como los modelos generativos y los deepfakes, están alterando los ecosistemas informativos y amplificando la propagación de contenido falso. Basado en un análisis de literatura científica y en estudios recientes sobre la relación entre IA y desinformación, se identifican los principales retos éticos y operativos que enfrenta el sector. Además, se exploran soluciones como la alfabetización mediática, el fact-checking y el diseño de políticas de regulación digital que promuevan un uso responsable de estas tecnologías.

Este trabajo enfatiza la importancia de un enfoque multidisciplinario que combine innovación tecnológica, formación ética y colaboración internacional para fortalecer la confianza en el periodismo y proteger el derecho a la información en un entorno digital cada vez más complejo

Palabras clave: Periodismo. Inteligencia artificial (IA). Desinformación. Alfabetización mediática. Fact-checking.

The integration of artificial intelligence (AI) into journalism is radically transforming the ways in which information is produced, distributed, and consumed. However, it also presents significant risks concerning disinformation and professional ethics. This article examines how advanced tools—such as generative models and deepfakes—are reshaping the information ecosystem and amplifying the spread of false content. Drawing on a review of academic literature and recent studies on the relationship between AI and disinformation, the article identifies the main ethical and operational challenges facing the sector. It also explores potential solutions, including media literacy, fact-checking, and the development of digital regulation policies aimed at fostering the responsible use of these technologies. The study highlights the importance of a multidisciplinary approach that combines technological innovation, ethical training, and international cooperation to reinforce trust in journalism and safeguard the right to information in an increasingly complex digital environment.

Keywords: Journalism. Artificial intelligence (AI). Disinformation. Media literacy. Fact-checking.

L'intégration de l'intelligence artificielle (IA) dans le journalisme transforme radicalement les modes de production, de diffusion et de consommation de l'information. Elle soulève néanmoins d'importants risques liés à la désinformation et à l'éthique professionnelle. Cet article analyse comment des outils avancés – tels que les modèles génératifs et les deepfakes – bouleversent les écosystèmes informationnels et accentuent la propagation de contenus faux. En s'appuyant sur une revue de la littérature scientifique et sur des études récentes concernant le lien entre IA et désinformation, il identifie les principaux défis éthiques et opérationnels auxquels le secteur est confronté. Sont également explorées des pistes de solution telles que l'éducation aux médias, le fact-checking, ainsi que l'élaboration de politiques de régulation numérique favorisant un usage responsable de ces technologies. Ce travail souligne l'importance d'une approche multidisciplinaire, alliant innovation technologique, formation éthique et coopération internationale, afin de renforcer la confiance dans le journalisme et de préserver le droit à l'information dans un environnement numérique de plus en plus complexe.

Mots clés: Journalisme. Intelligence artificielle (IA). Désinformation. Éducation aux médias. Vérification des faits.

1. SARRERA

Kazetaritzaren egungo egoeran, AAre eta desinformazioaren arteko konbergentziak erronka-sare konplexua sortu du komunikazioko profesionalentzat. Fenomeno horrek informazioa ekoizteko eta zabaltzeko dinamikak birdefinitzeaz gain, kontu etiko eta sozialak ere planteatzen ditu hedabideekiko konfiantzari, informazioaren egiazkotasunari eta audientzien manipulazioari buruzkoak. Artikulu honetan, aztertzen da tresna teknologikoak implementatzeak eta desinformazio-estrategiak ugaritzeak nola eraldatzen dituzten kazetaritza-praktikak eta, aldi berean, herritarrek informazio fidagarria eskuratzeko dituzten erak (Jankowski, 2018; Kapantai *et al.*, 2021; García-Marín & Salvat-Martinrey, 2022; Pérez-Escolar, Lilleker & Tapia-Frade, 2023).

Lehenik eta behin, egia-ostearen aroan bizi gara, non iritzi publikoak eratzean emozioak gertakariei gailentzen zaizkien. Testuinguru horrek, gainera, albiste faltsuak, konbentzitzeko edo manipulatzeko diseinatuak, azkarrago hedatzea erraztu du, baita sare sozialetan albiste egiaztatuek baino audientzia handiagoa lortzea ere (Vosoughi, Roy & Aral, 2018; López-Pan & Rodríguez-Rodríguez, 2020). Hori dela eta, Osasunaren Mundu Erakundeak, arazoaren larritasunaz jabetuta, «infodemia» terminoa sortu du informazio faltsuaren ugaritze masiboa deskribatzeko, bereziki mundu-mailako krisi egoeretan, hala nola COVID-19aren pandemian (OME, 2020).

Hala eta guztiz ere, desinformazioak sustrai historikoak dituen arren —Sobietar Batasunaren propaganda-estrategietatik hasi eta kanpaina politiko garaikideetaraino—, argi dago teknologia aurreratuak erabiltzeak —*deepfake*-ak eta hizkuntzaren eredu sortzaileak kasu— hedadura eta eraginkortasuna handitu dituela. Pascual-Presaren (*et al.* 2024) ustez, tresna horiek eduki engainagarria masiboki sortzea sustatzeaz gain, errealitatearen eta faltsutasunaren arteko bereizketa ere zailtzen dute, eta horrek zuzenean eragiten du publikoak komunikabide tradizionaletan duen konfiantzan. Alde horretatik, Europako Batzordeak (2018) honela definitzen du desinformazioa: «informazio egiaztagarriki faltsua edo engainagarria, irabazi ekonomikoak lortzeko edo asmo txarrez manipulatzeko sortua, aurkeztua eta zabaldua». Definizio horrek, gainera, borrokarako politiken eta estrategien diseinua oinarritu du, hala nola Desinformazioaren aurkako Ekintza Plana eta SOMA, PROVENANCE eta EUNOMIA bezalako lankidetzaproiektuak.

Bestalde, zenbait ikerketek desinformazioa hiru mota nagusitan sailkatu dute: *misinformation*, *disinformation* eta *malinformation* (Wardle & Derakhshan, 2017). Kategoría horiek barne hartzen dituzte bai errore zintzoak bai nahita egindako eragin handiko manipulazioak eta fenomenoak eremu digitalean duen aniztasuna eta konplexutasuna islatzen dute. Ondorioz, sare sozialetako informazio faltsuaren biralizazioa —plataforma horien algoritmiko-egiturak elikatua—, manipulazio masiborako tresna ahaltsua da eta iturri fidagarrien identifikazioa zailtzen du eta polarizazio soziala sustatu (Costa-Sánchez & López-García, 2020; Montemayor-Rodríguez & García-Jiménez, 2021).

Era berean, AAn egindako aurrerapenek arazoa areagotu dute. ChatGPT gisako teknologiek eta sare neuronaletan oinarritutako beste tresna batzuek erakutsi dute mehatxua izan daitezkeela, baina aukera ere bai. Alde batetik, eduki koherentea eta konbentzigarria sortzeko duten gaitasunak ezin hobek egiten ditu informazio faltsua hedatzeko; bestetik, desinformazio-ereduak identifikatzeko eta egiaztapen-lana indartzeko ere erabil daitezke (Baloch et al., 2024; Pascual-Presa et al., 2024). Hala ere, Taplinek (2023) adierazten duen moduan, teknologia horiekiko mendekotasun gero eta handiagoak arrisku etikoak sortzen ditu horien erabileraren eta erregulazioaren inguruan.

Gainera, AA erredakzioetan txertatzeak aukera berriak ireki ditu, baina alfabetatze mediatikoa eta trebakuntza profesionala indartuko dituzten politiken beharra ere areagotu du. García-Galera-ren, Del-Hoyo-Hurtado-ren eta Blanco-Alfonso-ren arabera (2020), kazetariak erroka bati egin behar diote aurre: asmatutako albisteak, zehaztasunik gabekoak edo okerrak bereizteari, informazioaren ugaritasuna eta sare sozialek lehen albiste-iturri gisa duten protagonismoa ezaugarri dituen ingurune digital batean lan egiten duten bitartean (Newman, 2022).

Artikulu honen asmoa AAK eta desinformazioak kazetaritzari nola eragiten dioten aztertzea da, etika profesionalaren, teknologiaren eta desinformazioaren aurka borrokatzeko estrategien arteko elkarguneak aztertuko dituen ikuspegia proposatuz. Horrela, esparru multidimentsional bat eskaini nahi da komunikazioko profesionalei aukera emango diena informazio-errealitate berri horrek planteatzen dituen errokei eta aukerei heltzeko.

1.METODOLOGIA

Ikerketa honek AAK kazetaritzan duen eragina eta desinformazioarekin duen harremana aztertzen ditu, alderdi etikoak, teknologikoak eta sozialak uztartzen dituen diziplinarteko ikuspegi batetik. Era honetan, alfabetatze mediatikoarekin, *fakenews*-ekin eta desinformazioaren aurka borrokatzeko estrategiekin lotutako kontzeptu nagusiak aztertzen dira, arreta jarriz problematika horiek kazetaritzan duten ondorioetan. Horretarako, hainbat datu-base akademiko eta iturri garrantzitsu erabili dira, besteak beste, ikerketa berriak eta gaiari buruzko aipamen giltzarriak.

Testuinguru horretan, ikuspegi metodologikoa elkarri lotutako hiru ikerketa-galderaren inguruan egituratu da:

1. Nola ari da AA kazetaritzaren dinamikak aldatzen?
2. Zein dira AAeko teknologiak erabiltzearekin lotutako arrisku nagusiak albisteak sortu eta zabaltzean?

3. Zer tresna eta estrategia daude teknologia horiek hedatutako desinformazioari aurre egiteko?

Analisiaren zorrotasuna bermatzeko, ikuspegi kualitatibo bat erabili da eta horri esker identifikatu ahal izan dira AAre erabileraren ereduak eta joerak kazetaritzaren esparruan. Horrek barne hartu du desinformazioari lotutako arriskuen kategorizazioa eta gobernuek, nazioarteko erakundeek eta komunikabideek ezarritako estrategien ebaluazioa.

Azkenik, aztertutako ikuspegiak artikulatu eta esparru ulerkor bat eskaini nahi izan da, kazetariari, akademikoei eta legegileei aukera emango diena AAK desinformazioaren aroan planteatzen dituen erronkak ulertzeko eta horiei heltzeko. Hala, ikerketak oinarria eskaintzen du berrikuntza teknologikoa, alfabetatze mediatikoa eta etika profesionala uztartzen dituzten konponbide integralak aztertzeko.

3. AZTERKETA

3.1 Kazetaritzaren bilakaera: aurrerapen teknologikoetara eta erronka berrietara egokitzea

Kazetaritzaren esparrua etengabe eraldatu da historikoki teknologia emergenteak txertatu ahala. Azken hamarkadetan ordea, aldaketa hori disruptiboa izan da, batez ere AA erredakzioetan inplementatu denean. Fenomeno horrek "exokazetaritza" (Tejedor & Vila, 2021), "robot kazetaritza", "kazetaritza konputazionala", "kazetaritza algoritmikoa" eta "kazetaritza automatizatua" bezalako terminoak sortu ditu, bilakaeran dagoen eta oraindik definizio argi eta zehatzik ez duen eztabaida islatuz (Mooshammer, 2022).

Kazetaritza-lanen automatizazio gero eta handiagoak prozesuak optimizatzeaz gain, kezka etikoak eta sozialak ere planteatu ditu. Zorrotasunaren galera eta informazioa egiaztatzearen ahultzea arazo nagusi bihurtu dira egungo demokrazientzat (López-Martín, Gómez-Calderón & Córdoba-Cabús, 2023). Fenomeno hori, gainera, larriagotu egin da ohiko hedabideek informazioa egiaztatu beharrean eduki desinformatiboak erreproduzitzeko joera areagotu dutelako. Horren ondorioz, infoxikazio-testuingurua sortzen da eta informazio-erakundeekiko konfiantza galtzen da (López-Martín *et al.*, 2023; Salaverría *et al.*, 2020).

Testuinguru horretan, kazetariaren rola «gatekeeper» izatetik «gatewatcher» izatera igaro da (Bruns, 2003) eta funtzio kritikoa hartu du edukien zaintzan. Trantsizio hori bereziki garrantzitsua da gerra-gatazken testuinguruetan adibidez; izan ere, kasu horietan, AAK sortutako desinformazioa kontrolik gabe zabaltzen da eta komunikabideen sinesgarritasunari eragiten dio. Duela gutxiko adibideek, hala nola Ukrainako gerrak edo Gazako krisiak, frogatu dute

kazetariak informazioa hautatu, egiaztatu eta testuinguruan kokatu behar dutela narratiba faltsuak indargabetzeko, «eduki-zaintzaile» gisa jardunez (Loo-Vázquez *et al.*, 2016).

Alde horretatik, teknologia funtsezko osagaia bihurtu da komunikabideen estrategian eta bilakaeran (Vállez & Codina, 2018). Hala ere, erredakzioetan txertatzearekin batera ez dator beti komunikazioko profesionalen prestakuntza akademiko egokiarekin batera eta horrek mugatu egiten du egungo erronketara egokitzeko gaitasuna (Ufarte-Ruiz, Fieiras-Ceide & Túnñez-López, 2020). Hala eta guztiz ere, kazetaritza automatizatu nagusitu egin da bai praktika profesionalean bai literatura akademikoan, fenomenoaren ñabardurak islatzen dituzten izen ugariekin (Cohen, Hamilton & Turner, 2011; Karlsen & Stavelin, 2013).

Erredakzioetan AA sortzailearen tresnak egoteak erronkak planteatzen ditu, esaterako kazetaritzaren rol sozialaren balizko gainbehera eta informazioaren egiazkotasunarekiko gero eta kezka handiagoa. Kim *et al.* (2021) eta López-Jiménez & Ouariachi (2020) autoreek azpimarratzen dute teknologia honek lanbidearen oinarriak birpentsatzera behartzen duela, bereziki makinek oso-osorik sortutako edukien hazkundearen aurrean. Kasu batzuetan, Europako eta Japoniako hedabideek albiste automatizatuak argitaratzen dituzten «hedabide sintetikoen» ereduak egin dituzte eta joera horrek, eraginkorra izan arren, galdera larriak planteatzen ditu informazioaren egiazkotasunari eta fidagarritasunari buruz (Ufarte-Ruiz, Murtzia-Verdú & Túnñez-López, 2023).

AArekiko gero eta mendekotasun handiagoak erregulazio eta kontrol profesional handiagoaren beharra dakar. Smuharen arabera (2021), printzipio editorialak egokitu egin behar dira teknologia horien erabileran gardentasuna eta etika bermatzeko. Smuharen arabera (2021), printzipio editorialak egokitu egin behar dira teknologia horien erabileran gardentasuna eta etika bermatzeko. Wu-k, Tandoc-ek eta Salmon-ek (2019) ideia hori indartzen dute, argudiatzen baitute kazetaritzak egiazkotasun- eta erantzukizun-balioak lehenesten jarraitu behar duela, baita tresna automatizatuak erabiltzen direnean ere. Gainera, hainbat ekimen proposatu dira, hala nola testuen egiletza nahitaez adieraztea eta hala, irakurleei aukera ematen zaie eduki hori gizakiek edo makinek sortu duten identifikatzeko, irakurketa informatuagoa eta kritikoagoa izan dadin.

Bestalde, gaur egungo ekosistema mediatikoak logika klasikoak eta digitalak bateratzen ditu eta fenomeno horrek kontsumo eta ekoizpen informatiboko dinamikak eraldatzen ditu. Kazetaritzaren muga tradizionalen desitxuratze horrek sekulako lehia sortu du hainbat eragileren artean publikoaren arreta erakartzeko eta erronka hori Carlson-ek eta Lewis-ek (2015), Chadwick-ek (2013) eta Van-Aelst-ek *et al.* (2017) deskribatzen dute audientzien leialtasun zatikatuaren borroka gisa.

Agertoki berri horretara egokitzeko, aurrerapen teknologikoak ez ezik, gogoeta sakona ere egin beharko da gizarte garaikidean kazetaritzak duen eginkizunari buruz. AA eta kazetaritza bateratzeak erronka konplexuak planteatzen dituen arren, lanbidearen etorkizuna birpentsatzeko aukerak ere zabaltzen ditu, betiere lan hori historikoki definitu duten printzipio etikoei eusten bazaie.

3.1.1. AAREN bilakaera kazetaritzan: hastapenetatik gaur egungo erabileretara

Kazetaritzaren esparruan AAREN historia duela zenbait hamarkadatarako da, hainbat garaitako lorpen tekniko eta kontzeptualak bateratzen dituzten sustraiekin. «Adimen artifiziala» terminoa 1956an erabili zuen lehen aldiz publikoki John McCarthyk Dartmoutheko Biltzarrean, bere ikerketaren hasiera formala diziplina gisa markatuz (Russell & Norvig, 2022). Hala ere, haren oinarriak Alan Turing-ek Bigarren Mundu Gerran egindako aurrerapenekin lotzen dira, bereziki mezuen deskodetzeari dagokionez, baita 1840ko hamarkadan Lady Ada Lovelace-k zituen etorkizun-seneko ideiekin ere, zeinak makina programagarrien etorkizuneko inplikazioak aurreratu zituen (Boden, 2022).

AAREN aurrerapenak bulkada nabarmena izan zuen laurogeiko hamarkadan, batik bat problema matematikoak ebazteko aplikazioan eta testu eleaniztunen azterketan, eta horrek etorkizuneko ezarpenetarako oinarriak ezarri zituen (Ufarte-Ruiz & Manfredi-Sánchez, 2019). Hasierako aurrerapauso horiek gorabehera, 2000ko hamarkadaren erdialdera arte ez zen nabarmen zabaldu esparru akademiko eta industrialetan eta, horri esker, AAKo teknologiek kazetaritzan ezartzeko moduak aldatu zituzten sofistikazio-mailak lortu zituzten (Crawford, 2021).

Ezarpen praktikoei dagokienez, albisteen ekoizpen automatizatuaren lehen esperimenduak 2010ekoak dira, The Big Ten Network-en proiektukoak, zeinak kirol-erreportajeak sortzeko automatizazio-sistema bat txertatu zuen (Canavilhas, 2022). Nahiz eta ez zen izan testu-educia sortzeko AA erabiltzen zen lehen aldia, proiektu horrek inflexio-puntu bat markatu zuen industria mediatikoan AA txertatzeko orduan. Geroago, 2014an, Los Angeles Times-en Quakebot softwarearen garapenak lurrikaren berri ematea automatizatu zuen eta, horrela, AAREN erabilera finkatu zen albiste espezializatuen ekoizpenean (Sánchez-García *et al.*, 2023).

Teknologiak aurrera egin ahala, Associated Press eta Le Monde bezalako erakundeek AA txertatu zuten haien irismena handitzeko eta prozesuak optimizatzeko. Associated Press albisteak sortzeko sistema automatizatuak erabiltzen hasi zen eta Le Monde, berriz, Data2Content teknologia erabili zuen hauteskundeetako emaitzei buruzko notizia laburrak ekoizteko, tresna horiek hainbat informazio-testuingurutara nola egokitu daitezkeen erakutsiz (Lichterman, 2017; Sánchez-González & Sánchez-González, 2017). Aldi berean, Narrative Science eta Automated Insights enpresek berebiziko

garrantzia izan zuten hizkuntza naturala prozesatzeko eta sortzeko teknologien garapenean eta kazetaritza-eduki automatizatua sortzea ahalbidetu zuten (Sánchez-García *et al.*, 2023). Espainian, Vocento MediaLab-en Medusa gisako proiektuek AAren aplikazioa aztertu zuten eremu espezifikoetan, hala nola hondartzen eta eski-pisten egoeraren monitorizazioan (Ufarte-Ruiz & Manfredi-Sánchez, 2019).

Duela gutxi, AppliedXL eta The Newsroom bezalako ekimenek automatizazioa hurrengo mailara eramán dute, datuak kazetaritza-informazio bihurtuz denbora errealean (Adami, 2023). Adibide berritzaileak dira El Confidencial-en AnaFut bot-a, zeinak kirol-kronika automatizatuak sortzen dituen (Rojas-Torrijos & Toural-Bran, 2019), eta Narrativa enpresa berriaren Gabriele softwarea, Espainiako hainbat komunikabiderekin elkarlanean kazetaritza-testuak sortzeko diseinatuak (Ufarte-Ruiz & Manfredi-Sánchez, 2019; Sánchez-García *et al.*, 2023). Tresna horiek AAk albisteen ekoizpena optimizatzeko duen ahalmena frogatzeaz gain, idazketa modernoetan teknologia automatizatuekiko gero eta mendekotasun handiagoa ere nabarmentzen dute.

Etengabeko eboluzioaren panorama honetan, 2022ko azaroan ChatGPT merkaturatzea mugari garrantzitsua izan zen erabilgarri jarri zen lehen astean milioi bat erabiltzaile baino gehiago atzitu zituelako (Altman, 2022; Roose, 2022; Lock, 2022). Datu kopuru handietan oinarritutako eredu honek giza interakzioak simulatzen ditu eta hainbat arlotan da erabilgarria, arlo akademikoan laguntzen, aipuak sortzen eta idazteko trebetasunaren atzerailikadura besteak beste (Aljanabi *et al.*, 2023; Aydere & Karaarlan, 2022; Gilat & Cole, 2023; Golan *et al.*, 2023; Huang & Tan, 2023). Zeregin konplexuak sinplifikatzeko eta informaziorako sarbidea errazteko duen gaitasunak kazetaritza garaikidean AA erabiltzeari dagozkion aukerak zein erronkak islatzen ditu.

Beraz, AAk kazetaritzan izan duen bilakaerak informazioa nola sortzen eta kontsumitzen den birdefinitzeaz gain, kazetariak ekosistema mediatiko hibrido batean duten zeregina birplanteatzen du. Aurrerapauso horiek aukera esanguratsuak eskaintzen badituzte ere, erronka etiko eta profesionalak ere badituzte eta haiei heldu behar zaie kazetaritzaren egiazkotasuna, fidagarritasuna eta erantzukizuna bermatzeko.

3.2. Erronka etikoak eta joerak kazetaritzan AAren aurrean

AA kazetaritzan sartzeak iraultza sakona ekarri du eta aurrekaririk gabeko aukerak sortu ditu, entzungor egin ezin zaien erronka etiko eta profesionalak planteatzen dituen bitartean. Kazetaritza-funtzio oinarritzkoetan giza lanaren ordekin makinak erabiltzeak eztabaidak piztu ditu teknologia horiek gizartean duten eraginaren inguruan. Dilema horrek profil profesionalak doitzea ez ezik, kazetaritza-graduetako programa akademikoak birformulatzea ere eskatzen du. Beraz, prestakuntza etiko-deontologikoa funtsezkoa bihurtzen

da kazetari berriak AAre erabileran trebatzeko, pentsamendu kritiko eta independenterako gaitasuna galdu gabe (Peña-Fernández, Meso-Ayerdi & Larrondo-Ureta, 2023).

Ekosistema digital konplexuan, informazio-bolumenaren hazkundeak informazio-desordenen berezko ahultasunak areagotu ditu (Wardle & Derakhshan, 2017). Fenomeno horrek, informazio-aniztasuna murrizteaz gain, polarizazio sozial eta politikoa ere sakonago egin du eta audientziak gero eta eduki faltsu gehiagoren eraginpean jarri ditu (Marwick & Lewis, 2017; Sunstein, 2017). Datuen erabileraren etika, edukien egiazkotasuna eta informazio-prozesuen gardentasuna, ondorioz, oinarrizko kezka bihurtu dira (Hansen et al., 2017; Brundage et al., 2018; Pihlajarinne & Alén-Savikko, 2022).

Egoera horrek garrantzi berezia hartzen du komunikazio politikoaren eremuan, sare sozialek informazio-fluxua eten baitute, konbentzitzeko tresna bihurtu baitira eta, aldi berean, manipulaziorako eremu egokia ere bai. Horrek iritzi publikoa kutsatu du igorleen borondatea islatzen duten narratiben bidez, botoaren polarizazioan eta osasun demokratikoan eragin zuzena izanik (Enguix, 2020; Casetxe-Ripollés, Doménech-Fabregat & Alonso-Muñoz, 2023). Sare sozialetako esposizio selektiboak informazio-burbuilak eta oihartzun ganberak sortzen lagundu du, zeinek erabiltzaileei ikuspegi ezberdinetarako sarbidea mugatzen dieten eta ideologia itxiak indartzen dituzten (Pariser, 2011; Cinelli et al., 2021; Masip, Suau & Ruiz-Caballero, 2020). Gainera, desinformazio masiboa zabaltzeko diseinatutako *socialbots* eta *softwareen* erabilerak konplexutasun-geruza bat gehitu dio arazoari, iritzi publikoa moldatzen duten narratiba faltsuak sendotuz (Boshmaf et al., 2011; Rossetti & Zaman, 2023).

Konplexutasun horren adibide bat *microtargeting*-a da, edukia pertsonalizatzeko audientzien ohiturak eta lehentasunak aztertzen dituen AAn oinarritutako estrategia. Teknika horrek komunikazio zuzenagoa ahalbidetzen badu ere, erronka etikoak ere mahaigaineratzen ditu, erabaki algoritmikoak diskurtso publikoaren eraketarekin konbinatzen baititu, kazetaritzaren objektibotasunean eraginez eta albiste faltsuak zabaltzea bultzatuz (Barbu, 2014; Gillespie, 2010; Bradshaw et al., 2020). Egiaztapen- eta gezurtapen-estrategiak, beharrezkoak izan arren, mugatuak izan ohi dira; izan ere, haien ondorioak, nagusiki, jada sinesmen jakin batzuk partekatzen dituzten audientzietara mugatzen dira (Van-der-Meer & Hameleers, 2019).

Eragin gehien duten AAre tresnen artean, ChatGPT nabarmendu da edukia sortzeko eta giza interakzioak simulatzeko duen gaitasunagatik. 2022ko azaroan kaleratu zenetik alabaina, kritikak jaso ditu informazio okerra zabaltzeagatik. ChatGPT-3.5 bertsioa «desinformazioaren hedatzaile handitzat» jo zen (Brewster, Arvanitis & Sadeghi, 2023), eta ChatGPT-4 bertsioak, berriz, hobekuntzak ekarri zituen arren, iturriak aipatzea adibidez, oraindik ere erronka nabarmenak ditu. NewsGuard-en azken ebaluazioek erakutsi dute okerreko informazioaren hedapenak bere horretan jarraitzen duela,

eta, gainera, aurreko bertsioetan baino ohikoagoa eta sinesgarriagoa dela (Brewster *et al.*, 2023).

AA kazetaritzan txertatzeak beste enpresa teknologiko batzuk antzeko tresnak garatzera bultzatu ditu. Googlek Bard aurkeztu zuen, ChatGPTren antzeko elkarrizketa-eredua eta Microsoftek, berriz, AA generatiboaren gaitasunak txertatu zituen bere bilatzailean, OpenAI-rekin lankidetzan (Google, 2023; Magallón-Rosa, Fernández-Castrillo & Garriga, 2023). Elon Muskrek berak ere AAKo bere enpresa merkaturatu du (X.AI), teknologia horiek ekosistema mediatikoan dituzten aukerak zabalduz (Prego, 2023).

Arrisku etikoak gorabehera, plagioa egiteko aukera eta gardentasun akademikorik eza barne (Alkaissi & McFarlane, 2023; Alshater, 2022), kazetarien eta akademikoen pertzepzio orokorra da AAK gaitasun profesionalak nabarmen hobetu ditzakeela. Tresna horiek ohiko zereginetan denbora aurrezteaz gain, kazetariei aukera ematen diete jarduera kognitiboagoetan kontzentratzeko, esaterako ikerketan, sormenean eta analisi kritikoan (Wu, Tandoc & Salmon, 2019; Guzman & Lewis, 2020; Aljanabi *et al.*, 2023).

Praktikan, AA dagoeneko erabiltzen da datuak aztertzeko eta joerak iragartzeko. Virality Oracle (The Washington Post-ek erabiltzen duena) eta Lynx Insights (Reuters-ena) tresnek, adibidez, erakusten dute nola teknologia horiek optimizatu dezaketen albisteak sortzeko prozesua eta nola hobetu dezaketen haien irismena (García-Avilés, 2019; Agarwal, 2018). Hala ere, hor jarraitzen dute AAK lan-prekarizazioan eta independentzia editorialean duen eraginari buruzko kezkek, funtsezko elementuak baitira kazetaritzan erakunde gisa konfiantza mantentzeko (Manfredi-Sánchez & Ufarte-Ruiz, 2020; Peña-Fernández *et al.*, 2023).

Beraz, kazetaritzan AA txertatzeak erregulazio sendoa eta uztartzen zaizkion arriskuak arinduko dituen ikuspegi etikoa eskatzen du, batez ere desinformazioari dagokionez. AAK sektorea modu positiboan eralda dezakeen arren, eraldaketa hori printzipio editorialekiko konpromisoarekin batera joan behar da, bai eta paradigma berri horren erronkei aurre egiteko kazetarien trebakuntzarekin batera ere.

3.3. Desinformazioak eta AAK bultzatutako informazio- eta konfiantza-krisiak

AAren teknologien gorakadak informazio-panorama eraldatu du, baina erronka garrantzitsuak planteatuz. Besteak beste, bilaketa-emaitzetan AAK sortutako erantzunak sartzea nabarmentzen da, Googlek 2023ko maiatzean iragarritakoa adibidez (Hazard-Owen, 2023). Horri erantzunez,

OpenAlk ChatGPTren ordainpeko bertsio berria agindu zuen, funtzio hobetuz hornitua, sarerako zuzeneko konexioa barne, zeina lehen kanpoko softwarearen menpe zegoen.

Hala ere, kazetaritzaren testuinguruan, ChatGPTk muga esanguratsuak ditu. Haren ezagutza estatikoak, 2021era arte bildutako datuetan oinarrituak, ematen duen informazioaren gaurkotasunari eta garrantziari buruzko galderak planteatzen ditu, batez ere etengabe eboluzionatzen ari den albisteen ingurunean. Alderdi horrek azpimarratzen du tresna horiek modu kritikoan eta gainbegiratuan erabili behar direla informazio-esparruan.

Aldi berean, aro digitalak desinformazioaren ondorioak areagotu ditu eta fenomeno horrek gizartean eragin sakona du. MITen ikerketen arabera, albiste faltsuek % 70 aukera gehiago dituzte partekatuak izateko eta biralak bihurtzeko egiazko informazioarekin alderatuta (Vosoughi *et al.*, 2018). Portaera hori bultzatu egiten da audientziek «Emirec» (Cloutier, 1973) gisa jarduteko duten gaitasunagatik, igorleen eta hartzaileen rola txandakatu, eta horrek erraztu egiten du eduki sentsazionalistaren hautaketa eta hedapena, askotan elkarrekintza sozialak maximizatzeko diseinatua.

Era berean, AAK tresna indartsuak eskaini ditu desinformazioa eskala handian sortu eta zabaltzeko, eta horrek iritzi publikoa manipulatzeko eta gizarte-egiturak ezegonkortzeko mehatxua dakar. Duela gutxiko adibideak dira, besteak beste, COVID-19aren pandemian konspirazio-teoriak ugaritzea, klima-aldaketari buruzko desinformazioarekin eta teoria terraplanistekin batera (Rodríguez & Giri, 2021; León, López-Goñi & Salaverría, 2022). Fenomeno hau ez da isolatua; izan ere, Cambridge Analytica bezalako kasuek eta Estatu Batuetako hauteskunde presidentzialetako interferentzia errusiarrak agerian utzi dute desinformazio-kanpainak gizarte-konfiantza apaldu eta zatiketak areagotu ditzaketela (Colley, Granelli & Althuis, 2020; Casero-Ripollés, Doménech-Fabregat & Alonso-Muñoz, 2023).

Audientzien rola funtsezkoa da desinformazioaren biralizazioan. Starbird-ek, Arif-ek eta Wilson-ek (2019) barneratutako «unwilling crowds» kontzeptuak azaltzen du pertsonek nola partekatzen eta moldatzen dituzten beren emozio edo sinesmen sakonetara iristen zaizkien edukiak. Gainera, Chadwick-en, Vaccari-ren eta O'Loughlin-en (2018) ikerketek azpimarratzen dute prentsa sentsazionalistaren irakurleek eduki engainagarria zabaltzeko joera handiagoa dutela, oihartzun ganberen eta informazio-burbuilen ondorioak areagotuz (Pariser, 2011; Cinelli *et al.*, 2021).

Hedabideek desinformazioari aurre egiteko ahaleginak gorabehera, haren eragin aplikatzaileak agerikoa izaten jarraitzen du. Ikerketek erakutsi dute komunikabideek berrietan ohartarazpenak edo zuzenketak egiten dituztenean ere, mezu zuzentzaile horiek ez direla nahikoa informazio faltsuaren hedapena indargabetzeko (Lewandowsky *et al.*, 2012; Walter *et al.*, 2020; Waisbord, 2018). Donald Trump 2016an boterera iritsi izanak inflexio-puntu bat markatu

zuen fenomeno honetan, albiste faltsuen azterketa areagotuz esfera publikoko elementu nagusi gisa (Orbegozo-Terradillos, Morales-i-Gras & Larrondo-Ureta, 2020; Salaverría *et al.*, 2020), eta errepikatu egin da beste behin 2024an ere, Donald Trumpen garaipenarekin.

Hala eta guztiz, herritarrek oraindik ere uste dute hedabideek eta eragile politikoez ez dutela behar adina egiten arazo horri aurre egiteko. Horrek erakunde askorengan ondorioak dituen konfiantza-krisia eragin du, komunikabideen enpresak, alderdi politikoak eta GKEak barne (Edelman, 2023; Pérez-Latre, 2022). Komunikazio publikoaren esparruan, mesfidantza hori zuzenean islatzen da informazio-kontsumoan; izan ere, konfiantza mediatikoak nabarmen eragiten du ikus-entzuleek zer berri kontsumitu erabakitzeke orduan (Fletcher & Park, 2017; Tsfti & Arieli, 2014).

Konfiantza mediatikoa, literatura akademikoan asko aztertua (Kohring & Matthes, 2007; Meyer, 1988; Otto & Köhler, 2018; Strömbäck *et al.*, 2020), informazio-produktuaren kalitatearen eta haren zehaztasuna bermatzeko erabilitako prozeduren araberakoa da. Arestiko ikerketek nabarmendu dute ingurune mediatikoko egiturazko tentsioek erakunde demokratikoak ahultzen laguntzen dutela, desinformazioa sakabanatzea erraztuz eta hedabideekiko konfiantza are gehiago higatuz (Bennet & Livingstone, 2018; Fawzi *et al.*, 2021).

Azken finean, desinformazioak arrakala ideologikoak handiagotzen ditu eta funtsezko erronkak planteatzen ditu kazetaritzaren integritaterako eta osasun demokratikorako (Au, Ho & Chiu, 2021; Serrano-Puche, 2021). Fenomeno honi aurre egiteko, diziplina anitzeko ikuspegi bat behar da, kazetarien prestakuntza etikoa, publikoaren sentsibilizazioa eta informazio-arloan AAren jardutearen erregulazioa uztartuko dituenak. Neurri horien bidez bakarrik izango da posible hedabideen informazioarekiko konfiantza berrezartzea eta desinformazioak maila publikoan dituen ondorio disruptiboak arintzea.

3.4. Desinformazioaren aurka borrokatzeko baliabideak

Aro digitaleko desinformazioaren hazkundeak fenomeno horri aurre egiteko hainbat baliabide eta estrategia ezartzea bultzatu du. Horien artean hauek nabarmentzen dira: *fact-checking* deiturikoa, algoritmo aurreratuen erabilera (*random forests*, *bots* eta *chatbots*), monitorizazio-sistemak eta behatokiak, bai eta FANDANGO, Iberifier eta EDMO bezalako proiektu ezagunak ere. Gainera, alfabetatze mediatikoko programek eta kazetarien prestakuntzak garrantzia erdietsi dute eta, horri esker profesionalek modu autonomoan identifika ditzakete benetako albisteak gezurrezkoen aurrean,

haien gaitasun kritikoa eta etikoa indartuz etengabe aldatzen ari den ingurune mediatiko batean.

3.4.1 'Fact-checking'-aren garrantzia

Gailu mugikorren bidez informazio faltsua sortzeko erraztasunak *cheapfakes*-en fenomenoaren ekarri du —modu amateurrean sortutako desinformazioak, alegia—, hezkuntza digitala eta alfabetatze mediatikoa hobetzeko beharra agerian uzten duena (Gamir-Ríos & Tarullo, 2022). Hezkuntza-tresna horien helburua herritarrak ahalduntzea da, egiazko informazioa eta manipulatu bereizteko beharrezko gaitasunak emanez, eta eduki faltsuak egaritzearen aurrean haien erresistentzia sendotuz.

Testuinguru horretan, *fact-checking* delakoa funtsezko praktika gisa sortu da eta honela definitzen da: «Argitaratutako edukietan akatsak, anbiguitasunak, gezurrak, zorrotasun falta edo zehaztasun ezak agerian uzteko datu-kazetaritzako teknikak aplikatzen dituen jarduera» (Ufarte-Ruiz, Peralta-García & Murcia-Verdú, 2018, 734. or.). Prozesu honi *debunking* ere esaten zaio eta baieztapenak zabaldu ondoren egiaztatzean datza, eduki faltsuak gutxieteko ahalegin hitzartua eginez (Lewandowsky, Cook & Lombardi, 2020).

Desinformazioaren aurkako borrokan *fact-checker*-rek duten papera oso ezaguna egin da azken hamarkadan (Hameleers & Van-der-Meer, 2020). Profesional espezializatu hauek zeregin erabakigarria betetzen dute integritate demokratikoa babesteko, ingurune digitalean dabilen informazio faltsua indargabetzen baitute (Moreno-Gil, Ramon-Vegas & Rodriguez-Martínez, 2021). Gainera, haien lana bereziki eraginkorra izan da politikarekin, klima-aldaketarekin eta COVID-19aren pandemiarekin lotutako informazio faltsuak gezurtatzeari dagokionez (Salaverría *et al.*, 2020; Pérez-Dasilva *et al.*, 2020; Ramon-Vegas *et al.*, 2020).

Hala eta guztiz ere, New York Times-ek (NYT) 2023ko irailean egindako txosten batek *fact-checking* ekimenetan geldialdi bat egon zitekeela adierazi zuen. Operazio horiek 2008ko 11tik 2022ko 424 arte igo baziren ere, kopurua pixka bat jaitsi da 417ra, eta horrek desinformazioaren aurkako borrokan ahaleginak indartu eta dibertsifikatu beharra azpimarratzen du.

3.4.2 Desinformazioaren aurka borrokatzeko proiektuak eta teknika berriak

Gaur egungo erronken aurrean, Europar Batasunak 2020tik finantzaturako Baliabide Digitalen Europako Behatokia (EDMO) bezalako proiektuek desinformazioaren aurkako borroka gidatu dute. EDMOk gertakari-egiaztatzaileekin, alfabetatze mediatikoaren adituekin eta ikertzaile akademikoekin lan egiten du, EBko 27 estatu kideak eta Norvegia hartzen

dituzten hamalau zentro nazional eta multinazionalako sare baten bidez (EDMO, 2023). Helburu nagusia tokiko desinformazio-kanpainak detektatzea eta aztertzea da, berariazko problematikei aurre egiteko ezagutza espezializatuak eskainiz.

Beste adibide nabarmen bat Iberifier da, 2021etik 1.700 desinformazio baino gehiago egiaztatu dituen EDMOri lotutako proiektua. 2023ko ekaineko txosten baten arabera, desinformazio horien % 50 politikarekin lotuta dago, eta horietatik % 20 hauteskunde-prozesuetan zentratzen da. Ohiko beste gai batzuk klima-aldaketa, zibersegurtasuna eta migrazioak dira (Peña-Fernández, 2023). Ahalegin horrek agerian uzten du eskualdeko behatokiek arazo espezifikoek ikuspegi estrategiko batekin heltzeko duten gaitasuna.

Gainera, FANDANGO bezalako ekimenek Big Dataren erabilera oinarritutako sektore arteko ikuspegi bat proposatzen dute, hainbat iturritako datuak integratuz eduki faltsuak detektatu eta egiaztatzeko. Proiektu honek egiazko komunikazioa eratu nahi du hedabideen enpresak, gobernu-erakundeak eta gizarte-erakundeak aktiboki inplikatzuz eta desinformazioaren aurrean lankidetzaren sarea sendotuz.

Teknologiari dagokionez, algoritmo aurreratuak garatu dira albiste faltsuak detektatzeko, hala nola *random forests* eta neurona-sareak. Teknika horiek guztiek espero zen arrakasta lortu ez duten arren, ikerketek desinformazioa identifikatzeko orduan zehaztasuna eta abiadura hobetzeko ikuspegi berriak aztertzen jarraitzen dute (Pasquetto *et al.*, 2022; Flores-Vivar, 2020).

AA erabiltzeak ere irauli egin ditu *fact-checking* ohiturak. Newtral-en ClaimHunter eta Maldita.es-en eta EFE Verifica-ren *chatbot*-en moduko tresnek desinformazio politiko eta sozialaren monitorizazioan eraginkorrak direla frogatu dute (Morrish, 2023). Ekimen horiek agerian utzi dute AA sortzaileak eduki faltsuen abiadurara eta konplexutasunera egokitzeko duen ahalmena, egiaztatzaileen erantzuteko gaitasuna hobetuz (Cybenko & Cybenko, 2018; Beckett, 2019).

3.4.3 Alfabetatze mediatikoa, informazio-alfabetatzea eta kazetarien prestakuntza

Alfabetatze mediatikoa funtsezko oinarria bihurtu da desinformazioari aurre egiteko. Ikuspegi honek norbanakoek eduki digitalarekin elkarreragiteko duten gaitasun kritikoa sendotzen du eta, gainera, informazio faltsuen aurkako borrokan erabilitako tresna teknologikoen osagarria ere bada (Amazeen & Bucy, 2019; Vraga, Bode & Tully, 2022). Europar Batasunak hainbat ekimenen bidez babestu ditu gaitasun horiek, hala nola *DigComp Framework for Digital Competence* (Ferrari, Punie & Brekko, 2013) eta Desinformazioaren aurkako Ekintza Plana (Europako Batzordea, 2018), era horretan, herritarren artean alfabetatzea sustatuz desinformazioa detektatzeko eta hari aurre egiteko.

Bestalde, UNESCOk *Media and Information Literate Citizens* hezkuntza-eredua sustatu du, hezitzaileen eta ikasleen gaitasun mediatikoak indartzeko, informazio manipulatua eragin negatiboak txikiagotzeko helburuarekin (Grizzle et al., 2021).

AAren inguruko etengabeko prestakuntzak eta haren ondorio etikoek ere garrantzia hartu dute. 2015ean sortutako *International Fact-Checking Network* (IFCN) erakundeak kazetariak egiaztapen-tresnen erabileran gaitzeko ekimenak gidatu ditu. Aldez aurretiko ikerketek nabarmentzen dute beharrezkoa dela ikasketa-planetan alfabetatze mediatikoko programak txertatzea eta azpimarratzen dute gaitasun kritikoak funtsezkoak direla informazio-ekosistema dinamiko batera egokitzeko (Celik, Muukkonen & Dogan, 2021; Jones-Jang et al., 2021).

Beraz, desinformazioaren aurkako hedabideek teknologia aurreratuak, alfabetatze-ekimenak eta sektoreen arteko lankidetzak uztartzen dituzte. Hala ere, eginahal honetan arrakasta lortzeko, beharrezkoa da AAeko gaitasunen etengabeko bilakaera eta konpromiso etikoa ingurune mediatikoaren erronka garaikideei aurre egiteko.

4. ONDORIOAK

Ikerketa honek AA eta kazetaritza bateratzetik sortzen den agertoki konplexua aztertu du, eta, zehazki, teknologia emergente horiek hedatutako desinformazioaren problematika kritikoa jorratu du. Planteatutako galderei erantzutean, funtsezko ondorioak ateratzen dira eta paradigma mediatiko berri honetako erronkak eta aukerak nabarmentzen dituzte. AAk atzera bueltarik gabe eraldatu du informazioaren eremu profesionala eta aldekoen eta aurkakoen artean banatu ditu haren erabilerari buruzko iritziak. Erlazionatutako arriskuei buruzko adostasun profesionala dago eta desinformazioa da berehalako eta diziplina anitzeko erantzunak eskatzen dituen arazo larriarrietako bat.

Agerian geratu da estrategia integralen beharra. Kazetarientzako AAko prestakuntza sendoa alfabetatze mediatiko eta informazio-alfabetatzeko programekin uztartzea funtsezko ikuspuntua da profesionalak aro digitalean behar diren trebetasunez hornitzeko. Ikuspuntu honek kazetariak ahaldundu ez ezik, audientziak indartu ere egiten ditu narratiba manipulatzaileak identifikatzeko eta horiei aurka egiteko gaitasunean.

Kazetaritzaren azterketa historikoak, aurrerapen teknologikoei dagokienez, funtsezko jardunbideen eraldaketa azpimarratzen du. Gatekeeper roletik gatewatcher rolera, AAk indar eragilea izan da albisteen ekoizpenean eta hedapenean, baina konplexutasun gehigarriak sartu ditu. Deepfake-ak, kazetaritza robota, oihartzun ganbera eta iragazki-burbuilak bezalako

fenomenoek areagotu egin dute informazioaren integritatea eta kazetaritzaren etika babesteko estrategia eraginkorrak garatzeko premia.

